

{ datorrena } Iñaki Soto

Txile, kasu paradigmaticoa izatearen ondorio eta kaltea

Aldian behin, Txilen Salvador Allenderekin, Pinocheten estatu kolpearekin eta AEBen injerentziarekin gertatu zena argitzen duten dokumentuak ateratzen dira. Aste honetan bertan, Richard Nixon eta Henry Kissinger estatu kolpea sustatzera eraman zituzten arrazoiak azaltzen dituzten dokumentuak desklasifikatu dira. 1970eko udazkeneko txostenak dira, Allendek hauteskundeak irabazi eta kargua hartzeko prestatzen ari zen garaikoak. «Txile guk espero bezala mugitzen bada eta jokabide horren ondorioak saihesteko gai bada... Latinoamerikan erabaki hori hartu ez duten zenbait adorea emango die», adierazten du Nixonek paper horietan, Kissingerren ildoari helduz.

Auzi hori «aurten hartu beharko duzun erabakirik historiko eta zailena izan daiteke», ohartarazi zion aholkulariak presidenteari. «Izan ere, datozen sei-hamabi hila-beteetan Txilen gertatzen denak AEBen eta Txileren arteko harremanetatik harago doazen ondorioak izango ditu», azaldu zion. Bere ustez, «gure esku dagoen guztia egin behar dugu, Allenderen boterea ez sendotzeko».

Orain jakin denez –nola-bait esateko–, Kissingerrek eta CIAko zuzendariak, Richard Helmsek, emandako aholkuekin, Nixonek posizioa hartu zuen Segurtasun Kontseilu Nazionalaren bilera batean, urte hartako azaroaren 6an. Komunismoak kutsatzea saihesteko, AEBko presidenteak Latinoamerikako militarrek babesteko beharra azaldu zuen: «Gure eraginpean dauden botere gu-neak direlako. Besteak (intelektualak) ez daude gure eraginpean. Laguntzaren bat eman nahi diegu. Bereziki Brasilen eta Argentinan».

Txosten horien argitalpena AEBetako hauteskundee-tako ajearekin batera gertatu da. Horren harira, gure inguruan gehien aipatu den liburuetako bat Steven Le-vitsky eta Daniel Ziblatten “How Democracies Die” izan

da [“*Cómo mueren las democracias*” Ariel; “*La mort des démocraties*” Calmann-Lévy]. Liburuan behin baino gehiagotan aipatzen da Txile. AEBen injerentzia, ordea, azaletik agertzen da, era anekdotikoan. Liburuaren tesia-ren arabera eliteen arteko interesen talka eta beren giza harremanen endekapena determinanteak dira. Ondorioz, alderdi geopolitikoa gutxienesten dute. Interesgarria bada ere, liburuak inperialismoa azaltzen kale egiten du. Demokraziak nola hiltzen diren azaltzeko, diktadurak nola bultzatzen diren azaldu beharko luke.

Kontrakoa ere gertatu da. Inoiz aipatu dut Walden Bel-lok “Shockaren doktrina” liburuari egin zion kritika. Kleinek, bere tesiari ez kalte egiteko, Txileko *establishment*-ak estatu kolpean izan zuen garrantzia alde batera uzten baitu. Herrialde baten historian, geopolitika, klase

Herrialde baten historian, geopolitika, klase borroka eta kultura demokratikoa konbinatzeko modua bakarra da, eta ezin da modu isolatuan irakurri. Ikuspuntu bat edo bestea hautatzea okerra izan daiteke

borroka eta kultura demokratikoa konbinatzeko modua bakarra da beti, baina ezin da modu isolatuan irakurri.

Kasu «eredugarria» izateak zure errealtateaz egiten den irakurketari kalte egin edo desitxura dezake. Mundu guztia saiatzen da eredu izaera hori behartzen. Honetan bai, Txile paradigmaticoa da. Izan ere, Txile gauza asko azaltzeko adibide ona da, baina bidean, sarri, Txilen gertatzen denarekiko interesa galtzen da. Une honetan, herriarren bultzadari esker eta erreferendum bidez, Pinochetek Konstituzioa bertan behera utzi dute. Trantsizio une honetan, arrisku eta aukera handiekin, hurrengo hamarkadetarako joko politikoaren arauak erabakiko dira. Demokraziak, hil ez ezik, birjaio baitaitezke. •